

Politeknika Ikastegia TXORIERRI BERDINTASUNA proiektua

2007-2008 IKASTURTEA

Ekintza plana

IRAILA 2007

AURKIBIDEA

1. LAN MARKOA
2. LEHEN URRATSAK (2006-2007 ikasturtea)
3. 2007-2008 EKINTZA PLANA
4. 2007-2008 PLANETIK ESPERO DIREN EMAITZAK

1. LAN MARKOA

1.- LAN MARKOA

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak



□ PITen EGINKIZUNETIK ETA BALIOETATIK...

"Politeknika Ikastegia Txorierrri irakaskuntzako kooperatiba bat gara... enpresen zerbitzura bideratua eta pertsonen prestakuntza integral eta iraunkorraz arduratzen dena..."

"...ikasleen orientazio pertsonalaz eta ikas-eta lanbide-orientazioaz arduratzen dena."

"... ikasleak lanean txertatzearekiko konpromisoa."

"... gure gizarte-, ekonomia-, kultura-, hizkuntza- inguruarekin eta ingurumenarekin arduratutako zerbitzu publiko integratua.""

... SEXU-BERDINTASUNAREN IKUSPUNTUA HURRENGO HONETARAKO GURE HEZKUNTZA-PROIEKTUAREN ZUTABEETAKO BAT BIHURTU BEHAR DELA SINISTERA:

- *Berdintasunean eta berdintasunerako hezi.*
- *Sexu-ezberdintasunik gabeko orientazio neurriak bultzatu .*
- *Emakumearen presentzia erraztu lan-txertatze zabalagoa duten prestakuntza arloetan.*
- *Emakumeak gizonezkoen ohiko lan-arloetan sartzea hobetu.*

□ BI ARLO EZBERDINETAN DIHARDUGU:

- Emakume langabeak lan-merkatuan sartzea sustatu, batez ere emakumearen presentzia urria edo lekukotasunezkoa deneko sektoreetan.



2006an Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Prestakuntza Sailak sustatutako EMAKINTZA programan sartu ginen.

- Berdintasunean eta berdintasunerako hezi. Honetarako:
 - 2006. urtean Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiketarako Arloak sustatutako PAREKATUZ programan ere sartu ginen.
 - Eta **BERDINTASUNA** proiektua zehaztu genuen, sexu-berdintasunaren ikuspuntua ikastetxe bezala dugun eginkizunean txertatzeko tresna berau



ERREFERENTZIA: 4/2004 Berdintasunaren legea eta, bereziki, III. kapitulua, 1. atala "Irakaskuntza ez unibertsitarioa"

1.- LAN MARKOA

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak



5

1. LEHEN URRATSAK (2006-2007 Ikasturtea)

1.- Berdintasuna.
Lan markoa



**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak

1. Gure inguruneari buruzko datuak lortu eta aztertu dira...

- Ingurune honetan jaiotza-tasa jaisten ari dela ikusten da...





Distribución sectorial del PIB (2004)

	Euskadi	España	Unión Europea-25
Agropesquero	1,18 %	5,90 %	2,10 %
Industria	28,56 %	16,01 %	20,80 %
Construcción	8,83 %	10,76 %	5,90 %
Servicios	61,42 %	67,30 %	71,20 %

- ... eta euskal gizarteak, behin industria-birmoldaketa burutu ondoren, "informazioaren eta ezagutzaren" delako gizartean aurrera egiteko (industria-sektore higiarazlea mantendurik), emakumea lan-merkatuan sartzea behar-beharrezkoa du.

- Emakumea lan-merkatuan sartzen doan arren (Lisboako %60ko helburua oraindik urrun dagoelarik), zerbitzuen arloan sartzen da batez ere.



Ezagutzaren Gizarteak pertsonak gaituak behar ditu. Emakumea lan-merkatuan (eta industria-arloan) sartzea gizarte-, kultura- eta ekonomia-garapenerako giltzarria da. La Sociedad del conocimiento requiere personas cualificadas.

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak

1. ... eta baita emakumea hezkuntzan sartzeari buruzkoak ere ...

BATXILERGOA (2004)	Nesken %
Batxilergoa guztira	54%
Batxilergoa teknikoa	20%

UNIBERTSITATEA (2002)	Nesken %	Enplegu Tasa	Ahokatutako Enplegua
Ikasketak guztira	60%	85%	76%
Ikasketa teknikoak	27%	89%	95%

LANBIDE HEZIKETA (2004)	Nesken %	Enplegu Tasa	Batezbesteko soldata garbia
LH guztira	44,4%	84,4%	818,7
Fabrikazio Mekanikoa	7,0%	90,2%	983,3
Elektronika	7,0%	86,3%	901,6
Zerbitzu soziokulturalak	93,0%	84,3%	680,9
Osasun zerbitzuak	88,0%	78,3%	685,4

Ikasketak "ohiko esperientziaren" arabera aukeratzeko ditugu. Honela, emakumeak laguntza-zerbitzuen inguruko edukietara makurtzen dira; gizonak eduki teknikoetara makurtzen dira (lan-merkatuan baloratuenak berauek)

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak

1. Ondorioak atera dira

- Ikasketa- eta lan-aukera ezberdinetatik hautatzea **sexu-ezberdintasunaren estereotipoek** baldintzatzen dute, emakumeei lanbide tekniko eta industrialetako atak itxi egiten baitizkiete (lan-merkatuan baloratuenak izan arren)
- 1. Sexu-ezberdintasunaren estereotipoak (sexu-ezberdintasunean oinarritutako rolak) gure kulturaren parte bat dira eta gizartearen esparru ezberdinetan garatzen eta transmititzen dira (familia, gizarte-harremanak, komunikabideak eta abar)
- 1. Sexu-ezberdintasunaren estereotipoei aurre egiteko behar-beharrezkoa da:
 - Nork "bere esku dagoena" egitea.
 - **Zehazpen**-ahalegin bat egitea (Zertarako, Norentzat, Zer, Nola...)
 - **Lankidetz**a-dinamikak garatzea.
 - **Gizarte-marketing**aren aldetiko ikuspuntuak eta teknikak erabiltzea.
- 1. PITen ekarpena bi arlotan banatuko da BERDINTASUNA proiektuaren bidez:
 - PITen sexu-berdintasuna sustatu (barne prozesuak)
 - Gurekin harremanetan dauden aurreko mailako ikastetxeekin eta inguruko agenteekin (udalak, enpresak, hiritar-elkarteak, erakundeak eta abar) elkarlana egin.

1.- Berdintasuna.
Lan markoa


**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak



1. Egindako azterketaren emaitzetan oinarriturik, eta hedapen-plan baten arabera, Berdintasuna proiektuaren jardunbideak zehaztu dira



1.- Berdintasuna.
Lan markoa

**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak

1. Eta lehen ekintzak burutu dira (2006-2007 ikasturtea)

I. Barrura begira: PITen sexu berdintasuna sustatu

- Berdintasuna proiektua ikastetxearen hezkuntza proiektuaren ardatzetako bat bezala txertatu.
- Proiektua irakasleei eta pertsonal ez irakasleari aurkeztu.
- Sexu-berdintasunaren ikuspuntua irakasle guztiei zuzendutako "Adimen emozionala" prestakuntza-saioan txertatu.
- Sexu-berdintasunaren ikuspuntua ate irekietako jardunaldietan txertatu.

II. Kanpora begira: PIT inguruko agente eredugarri bezala

- Sexu-berdintasunaren ikuspuntua aurreko mailako ikastetxeekiko harreman-prozesuetan txertatu.
- "Emakumea eta lan-merkatua" egoeraren berri komunikabide ezberdinetara hedatu.

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

**2.- LEHEN URRATSAK
(2006-2007)**

3.- 2007-2008
Ekintza plana

4.- Espero diren
emaitzak



1. 2007-2008 EKINTZA PLANA

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

**3.- 2007-2008
EKINTZA PLANA**

4.- Espero diren
emaitzak



Aurreko mailako ikastetxeekiko elkarreragina sendotu



Konpromisoa



jakinarazi

II. Kanpora begira: PIT inguruko agente eredugarri bezala


1.- Berdintasuna. Lan markoa

2.- Lehen urratsak (2006-2007)

3.- 2007-2008 EKINTZA PLANA

4.- Espero diren emaitzak

I-1 Curriculum ezkutua



Nori zuzendua:

- Irakasleak
- Hezkuntza-komunitate orokorra

Helburua :

Hezkuntza-komunitatea eta bereziki irakasleak gure eguneroko lanari eragiten dioten sexu-ezberdintasunaren estereotipoak ohartaraztea, beraiek identifikatzea eta aurre egiteko berariazko ekintzak zehaztea.

Deskripzioa:


"Diagnosi-Ekintza Plana" ikuspuntua erabiliz, gure eguneroko jardunean erabiltzen ditugun eta sexu-ezberdintasunaren estereotipoak mantentzen laguntzen duten sinismenez, jarreraz, aukerez eta abarrez konturatzean datza ekintza hau.

Garatu beharreko faseak hurrengo hauek dira:

- Jorratu behar diren alderdiak identifikatu (balioak eta jarrerak, komunikazio-prozesuetan erabiltzen diren hizkera eta irudi motak, ikasmaterialak, aukera ezberdinak sexuaren arabera eta abar)
- Behaketa-metodoak zehaztu (tresnak, arauak eta abar)
- Curriculum ezkutuaren osagaiei buruzko datuak bildu eta aztertu (irakasle-ikasle-pertsonal ez irakasle lan taldeak)
- Ondorioak atera eta sexu-ezberdintasunaren estereotipoei aurre egiteko ekintzak zehaztu

Sentiberatze-helburua betetzeko, irakasleek, ikasleek eta pertsonal ez-irakasleak ekintzan parte hartzea behar-beharrezkoa da.

I-2 Orientazioa (sexu-berdintasunaren ikuspuntutik)



Nori zuzendua:

- Batxilergoko ikasleak

Helburua :

Sexu-berdintasunaren kontzeptua orientazio-prozesuan sartzea, norik gizona edo emakumea izateagatik bere buruari buruz duen irudiaz, bere aukerez eta bere balorazio propioaz ikasleekin batera hausnartzeko

Deskripzioa:

Emakumezko eta gizonezko bezala zer ulertzen dugun oinarritzat hartuta, gaur egungo gizartean emakumea eta gizona izatearen kontzeptu hauek berrinterpretatzean datza ekintza hau eta interpretazio honetatik abiatuz, pertsona bakoitzaren interesak eta gaitasunak kontuan hartuz, bizitzarako (orientazio pertsonala, ikasketetarako (ikasketa-orientazioa) eta lanerako (lanbide-orientazioa) aholkatzean.

Ekintza hau bi printzipiotan oinarritzen da: hausnarketa eta pentsaera kritikoa sustatzea eta, bigarrenez, tutoreak eta ikasleak prozesuan parte hartzea bultzatzea. Ekintzarako zenbait alderdi garrantzitsu:

- Jorratu behar diren arloak identifikatu (balioak eta jarrerak, gizarte-rolak, ikasketa-ibilbideak eta lan-merkatua...)
- Tutoretza-orientazio prozesuan esku-hartzeko edukiak zehaztu (helburuak, tresnak, informazio-euskarriak eta abar)
- Edukiak tutoretza-orientazio prozesuan txertatu

Ekintza hau I-1 "Curriculum ezkutua" ekintzarekin hertsiki lotua dago, baldin eta gure eguneroko jardunean aurreiritziei, ohiturei eta estereotipoei aurre egiten badiegu, bultzatu nahi dugun orientazio-prozesuarekin koherente izan ahal izango dugu .

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

**3.- 2007-2008
EKINTZA PLANA**

4.- Espero diren
emaitzak

I-3 Laguntza lan-munduan sartzeko prozesuan

I-3

Lan-merkatuan sartzeko laguntza

Nori zuzendua:

- prestakuntza-zikloetako neskek.

Helburua :

Neskei lan-munduan sartzen laguntzea, bereziki sexu-estereotipoak mantentzen dituzten "ohiko gizalanetan".

Deskripzioa:

Ekintza positiboa da, neskek gaur egun ere mantentzen diren estereotipo jakin batzuei aurre egin ahal izateko baliabideak eta estrategiak biltzean eta garatzean datza ekintza hau.

Bi jardunbide ezberdin izango dira:

- Norbere estimua eta segurtasuna indartu eta elkarreraginerako goi mailako trebetasunak garatu (baiezpena).
- Lan-munduan sartzeko zerbitzuak: zenbait estereotipori aurre egin ahal izateko berariazko baliabideak garatu (argudioak, emakumeen kontrataziorako laguntza-zerrenda, LPko laguntza eta abar)

II-1 Aurreko mailako ikastetxeekiko elkarreragin-prozesuak sendotu.



Aurreko mailako ikastetxeekiko elkarreragina sendotu

Nori zuzendua:

- Gure inguruko DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetako Zuzendaritza Taldeak eta Orientazio Zerbitzuak.

Helburua :

Aurreko mailako ikastetxeei sexu-berdintasunaren ikuspuntua beren tutoretza-orientazio prozesuetan txertatu beharraz ohartaraztea .

Deskripzioa:

Ekintza hau 2006-2007 ikasturtean aurreko mailako ikastetxeekin hasitako harreman-lanaren segida da. Ateratzen diren ondorioen arabera, ikastetxe hauekiko harremana sendotzeko eta pertsonalizatzeko baliabideak eta estrategiak garatuko dira. Horretarako eta orientazio-prozesuetan sexu-berdintasunaren ikuspuntua txertatu behararen inguruan identifikatutako "jarreraren" arabera, hiru arlo bereiztu dira:

Arloa	Estrategia	Ekintza
Ez dute interes berezirik adierazi.	Informazioa eman.	Edukiak "bildu" eta helarazi
Interesa adierazi dute eta informazio zehatzagoa nahi dute.	Harremana sendotu.	Harreman "pertsonala" finkatu, ate irekietako jardunaldiak eta abar.
Prozesua abiarazteko asmoa adierazi dute.	Abian jartzeko elkarlanean aritu.	Ekintza pilotua (ikus II-2)

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

**3.- 2007-2008
EKINTZA PLANA**

4.- Espero diren emaitzak

II-2 Lanbide-orientazio ez sexistarako programa



Nori zuzendua:

- Txorierriko DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetako hezkuntza-komunitatea

Helburua :

Sexu-berdintasunaren ikuspuntua DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetako orientazio-prozesuetan txertatzea.

Deskripzioa:

PITek ekintza hau "Lankidetzaren sustatzea eta garatzea" ekimenaren barruan sartzen du (Sexu-berdintasunaren estereotipoak gure kulturaren sakonki erroturik daude eta hauei aurre egiteko ezinbestekoa da gizarte osoaren inplikazioa).

Ekintza honen funtsa sexu-berdintasunaren ikuspuntutik tutoretza- eta orientazio-ekintzak burutu nahi dituzten aurreko mailako bi ikastetxerekin ("C" arloko ikastetxeak) elkarlanean aritzea da. Honetarako:

- Orientatzaileentzako lan-talde bat osatuko da, ikuspuntuak eta esperientziak trukatzeko.
- Ekintza-plan bat zehaztuko da ikastetxe bakoitzerako.
- Plan hau burutu eta ebaluatuko da.

Ondorio-txosten bat egingo da inguruko agente ezberdinen artean banatzeko.

II-3 PITek sexu-berdintasunarekin duen konpromisoa jakinarazi



Nori zuzendua:

- Txorierriko DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetako hezkuntza-komunitatea eta gizarte osoa

Helburua :

PITek ingurunean berdintasunaren alde eredu bezala duen rola sendotu, ikuspuntuak eta esperientziak trukatu.

Deskripzioa:

Ekintza hau 2006-2007 ikasturtean hasitako lanaren segida da. Hurrengo arlo hauek jorratuko dira:

- Berdintasunarekiko eginbidea ikastetxeko komunikazio-prozesuetan eta komunikazio-euskarrietan txertatu.
- Artikuluak eta lanak komunikabideetara bidali.
- Berdintasuna bultzatzearen aldeko ekitaldietan parte hartu.
- ...

"PITen berdintasuna sustatu" barne-ekimenean aurrera agin ahala, gure ekarpenak aberatsagoak eta garrantzitsuagoak izango dira eta inguruko beste agente batzuekin ikuspuntuak trukatu eta lankidetzan aritu ahal izango dugu (ekintza honen helbururik behinena)

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

**3.- 2007-2008
EKINTZA PLANA**

4.- Espero diren emaitzak

1. ESPERO DIREN EMAITZAK

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

3.- 2007-2008
Ekintza plana

**4.- ESPERO DIREN
EMAITZAK**

1. PITen eginkizuna sexu-berdintasuna sustatzearen aldetik betetzen lagundu

"Politeknika Ikastegia Txorierrri irakaskuntzako kooperatiba bat gara... enpresen zerbitzura bideratua eta pertsonen prestakuntza integral eta iraunkorraz arduratzen dena..."

"...ikasleen orientazio pertsonalaz eta ikas-eta lanbide-orientazioaz arduratzen dena."

"... ikasleak lanean txertatzearekiko konpromisoa."

"... gure gizarte-, ekonomia-, kultura-, hizkuntza- inguruarekin eta ingurumenarekin arduratutako zerbitzu publiko integratua."

- Curriculum ezkututik abiatu, sexu-berdintasunaren ikuspuntua PITeko irakasleen esku-hartze prozesuan txertatu.
- PITeko tutoretza-orientazio prozesua hobetu, sexu berdintasunaren ikuspuntua txertatuz.
- Neskak PITek eskaintzen dituen "ohiko gizalanetan" sartzen laguntzeko baliabideak garatu.
- Sexu-berdintasunaren alde lan egiten duten inguruko ikastetxeekiko eta agenteekiko harremanak eta lankidetzaren prozesuak abian jarri.

1.- Berdintasuna.
Lan markoa

2.- Lehen urratsak
(2006-2007)

3.- 2007-2008
Ekintza plana

**4.- ESPERO DIREN
EMAITZAK**